

DIRU ITURRIAK

Mota honetako oheak sortzeko inbertsio handia egin beharko litzateke, eta horretarako, lehenik, prestamo bat eskatu beharko litzateke. Diru hau banku bati eskatuz edo beste enpresa baten laguntzaz lor genezake. Lehenik, bankuari prestamo bat eskatu beharko diogu, laguntza handi bat beharko baitugu gure enpresa martxan jartzeko. Bestetik, gero azalduko dugun aliatu garen enpresari laguntza "extra" bat eskatuko diogu. Zor hau, noski, gure enpresa garatzen eta dirua irabazten hasten garen heinean itzuli beharko da. Gure proiektua egiteko hainbat gastu egin beharko ditugu.

Lehenik, beharrezkoa den materiala erosi edo sortzeko Japonen sortutako oheak egiteko %60a gastatuko dugu. Garraioan, berriz, diruaren %20a gastatuko dugu. Garraioa barkuz egingo dugu lehenik Japonetik Espainiara ekartzeko, eta ondoren gure lokaleraino gerturatzeko.

Azkenik, publizitatean (aldizkarietan, iragarkietan, irratan...) %10 gastatuko dugu. Atal garrantzitsua da, hasieran batez ere, erosleak gure produktua ezagutzeko modua delako. Eta beste %20a gure soldata ordaintzeko. Bezeroei 900€ kobratuko diegu ohe bakoitzarengatik.